

## PRENTSA-OHARRA

# Lana bilatzeari buruzko autolaguntza-saio bat aukeratu dute, EikenBANKen bitartez modu profesionalean produzitua izateko aurkeztu ziren 55 proiektuen artean

- Imanol Ortizek sortutako “Artículo 35” saioak lan bila ari diren eta profesionalen aholkuak jasotzen dituzten langabeen eguneroko gorabeherak aztertzen ditu.
- ‘Dokureality’ hau K 2000 enpresak (“Pásalo”, “Kalaka”...) eta Canal Bizkaia kateak produzituko dute, eta ETBk emitituko du.

**Bilbon, ekainaren 10ean.** “Nekeetan, irria ezpainetan”. Horixe pentsatuko zuen Imanol Ortiz 36 urteko arabarrak, “Artículo 35” telebista-saioa bururatu zitzaionean. Lan bila ari diren pertsonen laguntza ematen dien saioa da, hain zuzen ere. ‘Dokureality’ hori aukeratu dute ikus-entzunezko 55 proiektuen artean (dokumentalak, telesailak...), Ikus-entzunezkoen Sektorearen Klusterrak sustatutako EikenBANK programaren bidez modu profesionalean produzitua izateko.

Orain, K 2000 produkzio-etxearen eskutik, “Artículo 35” saioa martxan jarriko da ikus-entzunezko produktu gisa, eta, azkenean, ETBk jarriko du ikusgai. Gainera, proiektuaren egileak 4.000 euroko diru-saria du, bai eta diru-kopuru bereko beka bat ere, lau hilabetez enpresarekin batera lan egin dezan, bere ideia garatu ahal izateko. Epaimahaiko kideek proiektu honen originaltasuna eta bideragarritasun komertziala baloratu dute, batez ere.

Oraingoan, gainera, epaimahaiak sari berezia eman dio Ana Hormaetxeren (Getxo) “Protervo” proiektuari. Telefono mugikorretik ikusi ahal izango den fikziozko telesaila da, hain justu. Izan ere, EikenBANKen arduradunek modu positiboan baloratu dute aurreranzko urrats hori, formatu berrietara eta ikus-entzunezko edukiak kontsumitzeko modu berrietara (kasu honetan, telefono mugikor bidezko telebista) egokitzen diren eduki multimediatarako proposamena delako. Proiektu honen kasuan, Irusoin eta Orio Produkzioak enpresak arduratuko dira ideiarekin garapen posiblea aztertzeaz.

*“Proiektuak, oro har, oso ondo landuta daude, freskoak dira eta planteamendu atsegina dute. Epaimahaikideek lan gogorra izan dute, eta hori seinale ona da. Gainera, profesionala ez den talentua enpresetan ezagutzera ematea da gure helburua, eta lortzen ari gara”, adierazi zuen Eiken – Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterraren presidentea den Juan Mari Gurrutxagak.*

### **EikenBANK PROGRAMA**

Joan den apirilaren 30ean amaitu zen Eiken – Euskadiko Ikus-entzunezkoen Klusterrak (EikenBANK programaren sustatzailea) jarritako epea, oraindik modu profesionalean ikus-entzunezkoetan lan egiten ez duten baina horretarako gogoia duten gazte sortzaileek euren proiektuak aurkeztu zituzten (dokumentalak, lehiaketak, telesailak, film luzeak, film laburrak...).

Ekimen hau web bidez kudeatzen da, eta, bertan, 55 ideia original jaso ziren, EikenBANKen lehenengo edizioan baino bi aldiz gehiago (orduko hartan 27 proiektu jaso ziren).

EikenBANKen arduradunek ahalegin handia egin dute ekimena aurkezteko; izan ere, prestakuntza-zentroetako, zine-eskoletako eta ikus-entzunezkoekin lotutako zenbait titulazio unibertsitariotako ia **bostehun ikasleri** aurkeztu diete proiektua. Eikenek 2008an martxan jarritako programa berritzaile honen helburu nagusia da **profesionala ez den talentu sortzailea aurkitzea eta** talentu hori **enpresekin harreman zuzenean jartzea**, lankidetzaz horretatik produktu lehiakor berriak sortu daitezkeen Euskadiko Ikus-entzunezkoen sektorearen barruan.

Hain zuzen ere, enpresen eta talentuen arteko harreman zuzena sustatzeko asmoz, EikenBANKen sari-banaketan –atzo arratsaldean egin zen, EiTBen eraikineko Multibox Aretoan– *Face to Face* bat antolatu zen (F2F EikenBANK), finalistek aukera izan zezaten produkzio-etxeekin harremanetan jartzeko eta esperientziak trukatzeko.

EikenBANKek Klusterreko bederatzi enpresaren inplikazioa dauka: **3Koma, Baleuko, Canal Bizkaia, EITB, Irusoin, Jarkatza, K2000, Orio Produkzioak eta Pausoka** dira enpresa horiek. Gainera, babes instituzional handia dauka; hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako Industria eta Kultura sailek, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundietako Berrikuntza sailek, SPRIk, Bilboko Udalak eta BBKren Gazte Lanbidean Fundazioak babesten dute ekimena.

Instituzioek modu positiboan baloratu dute elkarren lehia aritzen diren enpresak –Euskadiko Ikus-entzunezkoen Sektoreko garrantzitsuenak– proiektu batean elkartu izana, **profesionala ez den talentuaren aldeko proiektu bat bultzatzeko**. Aurreko edizioan bezala, ekimenak EHU/UPVren, Mondragon Unibertsitatearen, Deustuko Unibertsitatearen eta EAEko Ikus-entzunezko Ikasketa Zentro eta Zine-eskola guztien babesa dauka.

### **2009ko EDIZIOA, ZENBAKITAN**

EikenBANKen bigarren edizio honetan 55 lan jaso dira, 70 pertsonaren eskutik; aldiz, 2008an, 34 lagunek hartu zuten parte. Parte-hartzaileen %44 Bizkaikoak dira, %36 Gipuzkoakoak, %7 Arabakoak, eta %13 beste jatorri batzuetakoak. Aurkeztutako 55 proiektuetatik, gehienak (%25), dokumentalak egiteko ideiak dira. %16narekin, film laburretarako eta telebistako lehiaketetarako proiektuak daude, eta %15ekin, berriz, telesailentarako ideia originalak. Neurri txikiagoan, realityentarako, magazinentarako eta film luzeentarako proiektuak aurkeztu dira.

Joan den maiatzaren 2an, Euskal Telebistako bigarren kateak “Pintxos” saioa estreinatu zuen. Saio hori 3Koma enpresak produzitu du, eta Alazne Páramo bilbotarraren ideian dago oinarrituta; hain zuzen ere, proiektu horrek irabazi zuen EikenBANKen lehenengo edizioa, eta Alazne Páramo produkzio-etxearekin batera aritu da lanean, proiektua garatu ahal izateko. Saio gastronomiko horrek %20tik gorako audientzia-mailak izan ditu.

Gainera, EikenBANKen parte hartu ostean, aurreko edizioko finalistetako bi Baleuko eta Orio Produkzioak enpresetako gidoilari-taldeetan hasi dira lanean.

## EikenBANK 2009ko FINALISTAK

### PROIEKTU IRABAZLEA

---

#### **“ARTÍCULO 35” (Dokurealitya)**

*Sustatzailea: Imanol Ortiz López, Gasteizen jaioa 1973an. Montehermoso zine-ikastaroa: zelan egin 5 minutuko film labur bat.*

Sinopsia:

"Artículo 35" dokurealityan, lan bila ari diren langabeen edo gustura ez dauden langileen gorabehera neketsuak aztertzen dira. Gainera, pertsona horiek saioko aditu batzuen aholkuak jasoko dituzte, eta, aldi berean, espezialista horiek lan hautaketetako prozesuen sekretuak argituko dizkigute.

### EPAIMAHAIAREN SARI BEREZIA

#### **“PROTERVO” (Telefono mugikorretarako telesaila)**

*Sustatzailea: Ana Hormaetxe Ibarbengoetxea (Getxo). Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatua Nafarroako Unibertsitatean.*

Sinopsia: Egileak kapitulu laburrez osatutako telesaila proposatzen du. Atalak SMS bidez eskatu behar dira, eta telefono mugikorrera jaisten dira.

### PROIEKTU FINALISTAK

---

#### **“EUSKADI EN ROTACIÓN” (Dokumentala)**

*Sustatzailea: José Félix Díez Corujo (Barakaldo, Bizkaia). Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatua.*

Sinopsia: Euskadiko herri eta leku interesgarriei buruzko dokumentala.

#### **“GO INTERRAIL” (Lehiaketa)**

*Sustatzaileak: Pilar Sastre (Derio, Bizkaia) eta Blanca Fuentes (Santander). Publizitate eta Harreman Publikoetako ikasleak EHU/UPVn*

Sinopsia: Gazteak eta bidaiak lotzen dituen Lehiaketa.

#### **“¿A ESTO LE LLAMAN TRABAJAR?” (Dokumentala)**

*Sustatzailea: Sergio Campo (Bilbao), Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatua EHU/UPVn.*

Sinopsia: lanbideak ardatz dituen dokumentala.

#### **“ODOL ZIKIN” (Telesaila)**

*Sustatzailea: María Ruiz de Azua (Arrasate), Santos Rueda Torre (Bilbao), Mari Carmen Ganoso (Bilbao) eta Luis Mariano Sánchez (Bilbao). Gidoigintzako ikasleak.*

Sinopsia: Bilboko familia berezi baten gorabeherak kontatzen dituen telesaila.

**“COACHSURFING, MUNDUA MUGIMENDUAN” (Dokumental)**

*Sustatzailea: Juan De la Vega Senar, (Altsasu, Nafarroa). Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatua EHU/UPVn.*

Sinopsia: Bidaiatzeko modu berri bati buruzko dokumentala.

**“DESCOSIDAS” (Telesaila)**

*Sustatzailea: Lara Monferrer (Donostia). Telebistarako fikziozko gidoigintzako masterra.*

Sinopsia: Emakumeak protagonista dituen telesaila.

**“EL APUESTÓN” (Lehiaketa)**

*Sustatzailea: Zaira Zanguitu Castro (Elgoibar, Gipuzkoa). Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatua.*

Sinopsia: Herri eta taldeen arteko “pike”-en inguruko lehiaketa.

**“PELÖTARERNA, JUGADOR DE PELOTA” (Dokumentala)**

*Sustatzailea: Rubén Rosas Martínez (Donostia). Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziatua EHU/UPVn.*

Sinopsia: Euskal pilota eta Suedia herria lotzen duen dokumentala.

---